



EBAKUNTZA KIRURGIKOAREN ONDORIOZ SORTUTAKO ALDI BATERAKO EZINTASUN EGOERETAN ORDAINSARIAK OSORIK JASO AHAL IZATEKO, EUSKO JAURLARITZAKO XXXXX SAILEKO LANGILEEI OSASUN DATUAK NAHITAEZ AURKEZTU BEHARRA EZARRI IZANARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu dute goiburuan adierazitako gaiari buruz.

BIGARRENA: Hona idazkiak zioena, besteak beste:

"...Eusko Jaurlaritzako XXXXX Saileko lizentziei eta baimenei buruzko araudiak hainbat murrizketa aurreikusten ditu nominetan aldi baterako ezintasunengatik, baina murrizketetatik kanpo uzten ditu ebakuntza kirurgikoak, ospitaleratzeak edo erditzeak.

Azken boladan hainbat lankideri murrizketak egin zaizkie nominetan ebakuntza kirurgiko bat egiteko zentro medikuetara joan arren, eta esan diete deskonturik ez egiteko nahitaezkoa dela ebakuntzaren mediku txostena aurkeztea, eta ez dela nahikoa ospitaleko egiaztagiria aurkeztea.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu da argitzeko ea datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin ondo ezkontzen den ebakuntza egin duen ospitaleko egiaztagiriaren gain, ebakuntza kirurgikoari buruzko mediku txostena aurkeztu beharra, aldi baterako ezintasunengatik ordainsariak murriztea nahi ez bada.



Kontsultan aipatzen den informazioa inork ikusteko moduan jartzea datuen tratamendu bat da; hain zuzen ere, datu lagatsetzat edo datu komunikatuetzat jotzen da, DBLOren 3 i) artikulua ematen duen definizioaren arabera:

“Interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea.”

Datu pertsonalen komunikazioen lege erregimena batez ere DBLOren 11. eta 21. artikuluetan dago jasota. Hala ere, DBLOk gehiago babesten du osasun datuen tratamendua; beraz, DBEBri egindako kontsulta ebazteko, aztertu egin behar du babes hori.

II

"Osasun datuak" edo "osasunari buruzko datuak" edo "osasunarekin zer ikusia duten datuak", era batean edo bestean deitu, zer diren definitzen du DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1.g) artikulua: *"Pertsona baten garai bateko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisiko edo mentalari buruzko informazioa"*.

Osasunari buruzko datuek babes berezia dute datu pertsonalen babesaren oinarrizko eskubidearen aldetik, osasun datuak modu desegokian tratatuz gero, titularrak kalte handia jaso dezakeelako.

Nazioarteko eta Batasuneko arauak osasun datuei ematen dieten babes berezia DBLOn islatu da; izan ere, berriazko lege erregimena finkatzen baitu 7. artikuluko 3. idatz-zatiak, *"Bereziki babestutako datuak"* izenburuarekin, datu horiek babesik handiena merezi dutelako, nortasunaren alderdirik intimoenei buruzkoak direlako eta oinarrizko eskubide biren bilgunea direlako: intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea.

Horren arabera:

"Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori."

Kontuan hartzen bada osasun datuak, datu sentisibileak izanik, eragin handia dutela ukituaren esparrurik intimoenean, DBLOk izaera orokorrekin ezarri duena baino erregulazio berezituagoa eta zorrotzagoa ezarri du osasun datuen tratamenduari buruz - zein kasutan egin daitezkeen- eta datuen tratamenduetan segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriei buruz; bai eta osasun datuen tratamenduetan betebeharreko konfidentzialtasun eta zuhurtzia betebeharrari buruz ere; eta, ondorioz, nahitaez bete beharreko araua izango da datuen titularren berriazko adostasuna eskuratzea, datu horiek tratatzeko.

Edozelan ere, legez xedatutako kasuetan, 7.3 artikulua osasun datuen tratamendua burutzeko aukera aurreikusten du. Lege gaikuntzaren oinarrian, baina, interes orokorreko arrazoiak egon beharko dira nahitaez.



Hona Lege Organikoaren 7.6 artikulua dioena:

"Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, artikulua honen 2 eta 3. idatz-zatiek aipatu izaera pertsonaleko datuak tratatzeko modukoak izan daitezke, datu horiek tratatzea beharrezkoa denean prebentziorako edo medikuaren diagnostikoarentzat, osasun-laguntza emateko edo tratamendu medikoentzat edo osasun-zerbitzuak kudeatzeko, baldin eta datu horiek tratatzen baditu lanbide-isiltasuna duen osasun-erloto profesional batek, edo lanbide-isiltasunaren pareko betebeharra duen beste pertsonaren batek.

Aurreko paragrafoak aipatzen dituen datuak tratatzeko modukoak izango dira, berebat, tratamendua beharrezkoa denean ukituaren edo beste pertsona baten berebiziko interesa babesteko, ukituak bere adostasuna emateko gaitasunik ez duenean arrazoi fisiko zein juridikoen ondorioz."

Audientzia Nazionalak 2002ko maiatzaren 31ko epaian artikulua hori interpretatu zuen, eta adierazi zuen 7.6 artikuluan aurreikusitako salbuespena era murriztuan interpretatu behar dela, eta esan zuen kasu bakoitzean aztertu behar dela ea tratamendua benetan den prebentziorako eta diagnostikorako. Beraz, beste helbururen bat duen tratamendu baterako bada (aztertzen ari garen kasuan adibidez aldi baterako ezintasunak kontrolatzea), eta helburua "bigarren mailakotzat" jo badaiteke, orduan ez da 15/1999 Lege Organikoa ezarritakoaren babespean egongo.

Bestalde, DBLOren 8. artikulua zera dio osasun asistentziaren esparruari dagokionez:

"Lagapenaren inguruan 11. artikulua xedatutakoa gorabehera, erakunde eta osasun-zentro publiko zein pribatuak eta kasuan kasuko profesionalek eurengana jotzen duten pertsonen edo euren tratatu behar dituzten pertsonen osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak trata ditzakete, estatuko edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko osasunari buruzko legerian xedatutakoaren arabera."

15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua ere antzekoa dio 10.5 artikuluan:

"Ez da beharrezkoa izango interesatuak baimena ematea, osasunarekin zerikusia duten datu pertsonalak komunikatzeko Osasunaren Sistema Nazionala osatzen duten erakunde, zentro eta zerbitzuen artean, eta hori baita baliabide elektronikoen bidez ere, betiere datu horiek pertsonen osasun arloko arreta eskaintzeko ematen badira; hori guztia Osasunaren Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen V. kapituluaren xedatutakoaz bat egin behar da."

Azkenik, Lege Organikoaren 11.2 f) artikulua ere dio zilegi dela osasunarekin lotutako zenbait datu lagatzea "Osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak lagatzea beharrezkoa denean, fitxategira jotzea eskatzen duen larrialdiari aurre egiteko edo ikerketa epidemiologikoa egiteko, estatuko zein autonomia-erkidegoetako osasunari buruzko legerian ezarritakoaren arabera".

Esandako guztia ikusirik, Bulegoak ateratzen duen ondorioa da DBLOren 7.3 artikulua araubide berezia ezartzen duela osasuneko datuentzat. Beraz, interesdunaren adostasunik gabe osasuneko datuak tratatu edo komunikatzeko, lege baten baimena behar da, eta baimen horren oinarrian interes orokorreko arrazoiak egon behar dira.

Ondorioz, 15/1999 Lege Organikoa osasun datuak noiz tratatu daitezkeen zorrotz adierazita dauka zerrenda batean. Hona hemen noiz tratatu daitezkeen osasun datuak:



- Interesdunak berariaz adierazten badu hori egiteko adostasuna.
- Lege izaera duen arau batek hori egin daitekeela esaten badu.
- Tratamendua ezinbestekoa bada prebentziorako edo mediko diagnostikorako, osasun asistentzia emateko edo osasun zerbitzuak kudeatzeko; baina, 15/1999 Lege Organikoaren 7.6 artikulua ezarritako murrizketekin: Gainera, lehen esan bezala, artikulua interpretazioa ere murriztailea izan beharko da.
- Tratamendua nahitaezkoa bada ukituaren hil ala biziko larrialdi egoera bati aurre egiteko.
- Tratamendua osasun arretaren esparruan eta osasun zentroetara joaten diren pazienteei dagokienez egiten bada, eta ezargarria den lege sektoriala dioena betez egiten bada.
- Datuak komunikatzea nahitaezkoa bada larrialdi bati aurre egiteko edo azterketa epidemiologikoak egiteko.

III

Pertsonen osasun datuak tratatzeko ezarri beharreko lege erregimena azaldu ondoren, aztertzen ari garen kasua argitzen ahaleginduko gara. Kasu honetan honako arauak arautzen dituzte ezintasunagatik ordaintzen den diru zenbatekoa, prestazioa eta prestazioaren kudeaketa: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua eta apirilaren 18ko 575/1997 Errege Dekretua.

Azpimarratu behar ditugu, batetik, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko II. Tituluko (Eregimen Orokorri buruzkoa) IV. kapituluko 128. artikulutik 133. artikulura bitartean xedatutakoa; eta, bestetik, berrogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.

"Gizarte Segurantzaren diru prestazioak onartzeko behar diren datu medikuak bidaltzea.

Ezintasun iraunkorraren deklarazioen prozeduretan, Gizarte Segurantzaren prestazioen ondorioetarako, eta aldi baterako ezintasunengatik, zurztasunagatik edo seme-alabengatik dagokien familia diru-zenbatekoak aitortzeko edo mantentzeko kontuetarako, ulertuko da interesdunak edo bere legezko ordezkariak baimena eman duela osasun erakundeek interesdunak dituen lesio edo gaitzen gaineko osasun txostenak, dokumentazio klinikoak eta horiekin zer ikusi zuzena duten datu medikuak bidal ditzaten, garrantzitsuak badira prozedura ebatzeko, interesdunek edo legezko ordezkariak berariaz eta idatziz adierazi ezean ez bidaltzeko.

Gizarte Segurantzaren baitako erakunde kudeatzaileek, prestazioak kontrolatzeko eta aitortzeko dituzten eskumenak baliatzeko, osasun zerbitzu publikoek, Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbideko gaixotasunen mutuek eta enpresa laguntzaileek egindako aldi baterako ezintasunen mediku-parteak bidaltzeko eskatu ahal izango dute, bertan jasotako datuak tratatu ahal izateko. Era berean, Gizarte Segurantzaren baitako erakunde kudeatzaileek eta entitate laguntzaileek haurdunaldi bitarteko arriskuaren edo edoskialdi naturalak iraun bitarteko arriskuaren ondoriozko



prestazioak aitortzeko eta kontrolatzeko behar dituzten onuradunei buruzko datuak eman ahal izango dizkiote elkarri.

Osasun zerbitzuetako ikuskatzailetza medikuak Gizarte Segurantzaren baitako erakunde kudeatzaileek dituzten datu medikuak bidaltzeko eskatu ahal izango dute, euren eskumenak gauzatzeko behar badituzte.”

Ikus dezakegunez, araudi sektorialak jasota dauka datu medikuak Gizarte Segurantzara bidali behar direla. Enplegataileari ezin zaio sekula bidali, ordea. Aldi baterako ezintasunengatik Gizarte Segurantzak ematen duen diru prestazioa kudeatzeko eta kontrolatzeko zenbait alderdi arautzen dituen apirilaren 18ko 575/1997 Errege Dekretuak honakoa xedatzen du 1. artikuluan:

”Mediku-bajaren egoera deklaratzeko, aldi baterako ezintasunagatik prestazio ekonomikoa jasotzeko ondorioetarako, ukitutako langilea aztertu duen Osasun Zerbitzu Publikoko Medikuak egindako mediku-bajan adierazi beharko da egoera. Medikuaen baja-partea da subsidioaren eskubidea dagoela deklaratzeko edo ukatzeko jarduerak hasten dituen egintza.”

Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatzen dute zein den aldi baterako ezintasunak egiaztatzeko eta kontrolatzeko erregimena:

”3. artikulua. Aldi baterako ezintasuna egiaztatzeko egintzak.

1. Dagokion Osasun Zerbitzu Publikoko, Gizarte Segurantzaren baitako erakunde kudeatzaileetako edo Gizarte Segurantzako Lan-istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutuetako medikuek egiten dituzten ezintasunak egiaztatzeko egintzen oinarrian honakoak egongo dira: medikuaren baja-partean jasota dauden datuak, baja berresteko partean daudenak eta gerora mediku horietako edozeinek egindako azterketatik eta irizpenetatik berariaz eratorritakoak ere bai.

2. Artikulu honek aipatzen dituen jarduera medikuek ahalik eta babes tekniko handiena izan dezaten, eginbehar horiek dituzten medikuen eskura jarriko dira aldi baterako ezintasunak ekar ditzaketen prozesu patologikoen iraupenari buruzko batez besteko zenbait taula, eta prozesu horiek lan jarduera bakoitzean zenbaterainoko eragina izan ditzaketen adierazten duten beste hainbat taula.

3. Artikulu honetan aipatzen diren mediku jardueretatik eratorritako datuak datu konfidentzialtzat joko dira, eta datu horiek kontsultatzen dituztenek sekretu profesionala gorde beharko dute. Datu horiek ezingo dira erabili diskriminatzeko asmoz edo langilea kaltetzeko; eta ezingo dira erabili beste helburu batzuetarako ere ez, bakarrik aldi baterako ezintasunen prozesuak kontrolatzeko erabili ahal izango dira.

4. Ukitutako langileen intimitaterako eskubidea bermatzeko, datu erreserbatuak kodetutako gakoaren bidez zifratu ahal izango dira. Edozelan ere, [Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatuari buruzko urriaren 29ko 5/1992 Legeak](#) babestuko ditu datuak.

4. artikulua. Diru prestazioen eta aldi baterako ezintasun egoeren jarraipena egitea eta kontrolatzea.

1. Gizarte Segurantzaren baitako entitate kudeatzaileek eta Lan-istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutuek, dagokien arduren arabera, egingo dute estali nahi den aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoaren gaineko kontrola eta jarraipena; eta kontrola eta jarraipena egiteko, gertakariak eta subsidioa jasotzeko



eskubidea ekarri zuen egoera mantentzen direla egiaztatzea helburu duten jarduerak egin ahal izango dituzte, aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoaren gastuaren kudeaketa haien gain geratzen den unetik aurrera, alde batera utzita batetik, eskubidea deklaratzeko, eteteko, ezabatzeko edo bertan behera uzteko dituzten ahalak eta Osasun Zerbitzu Publikoei dagozkien eskumenak alta eta baja medikuen osasun kontrola egiteko.

2. Osasun Sistema Nazionaleko mediku zerbitzuek, entitate kudeatzaileei atxikitako medikuek eta Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbideko gaixotasunen mutuek aldi baterako ezintasun egoerei buruzko txostenak eta diagnostikoak atzitzeko ahalmena dute, esleituta dituzten eskumena burutu ahal izateko. Langilearen osasun egoerari buruzko datuak datu konfidentzialtzat joko dira, eta 3. artikuluko [3. artikuluko](#) 3. eta 4. idatz-zatietan xedatutakoa ezarriko zaie.”

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra eta Errege Dekretua irakurri eta gero, ondorioztatzen da Osasun Zerbitzu Nazionaleko mediku zerbitzuek eta entitate kudeatzaileetara mutuetara atxikitako medikuek badutela ezintasun egoerei buruzko txostenak eta diagnostikoak eskuratzeko ahalmena; eta gure ustez, enplegatzaileak ez du datu horiek eskatzeko inongo lege heldulekurik.

III

Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile publikoek aldi baterako ezintasun-egoeran daudenean eta jakineko baimen batzuk dituzten aldietan jasoko dituzten lansariak eta borondatezko hobekuntzak onartzeko den urtarrilaren 28ko 3/2014 Dekretuak honakoa dio 4. artikuluan:

"4. artikulua.- Salbuespenezko egoerak, non Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile publikoek euren lansarien ehuneko ehun (% 100) jasoko baitute.

Dekretu honen aplikazio-eremuan dauden langileek euren lansarien ehuneko ehun (% 100) edo ehuneko ehun (% 100) horretara iritsi arteko osagarria jasoko dute, honako kasu hauetan:

a) Erditzea, adopzioa, harrera, aitatasuna, haurdunaldiगतिको arriskua edota edoskitzaro naturalak iraun bitarteko arriskua direla-eta emandako baimenetan.

Kasu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko langile publikoen lan-baldintzak arautzen dituzten akordio edo hitzarmen kolektiboek xedatutakoaren arabera arautuko dira aurrerantzean ere.

b) Lanbide-gertakizunengatik sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.

c) Haurdunaldiaren ondorioz sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.

*d) Ospitaleratzea edo **ebakuntza kirurgikoa egitea dakarten gertakizun arruntengatik** sortutako aldi baterako ezintasun-egoeretan.”*

Beraz, badirudi ebakuntza kirurgikoa egiaztatuta edo justifikatuta badago, nahikoa izango dela dekretu horretan xedatutako betekizuna betetzea.

Baina, badirudi ebakuntza kirurgikoaren egiaztatzearen gain, "ebakuntzaren mediku txostena" aurkeztu behar dela nahitaez, eta horrek adierazten du helburua dela benetan



seguru egotea ondo betetzen dela aldi baterako ezintasunen egoeran dauden pertsonen ordainsarien % 100a ordaintzeko betekizuna.

Horren gainean adierazi behar dugu administrazioak, egiten dituen tratamenduetan (datu bilketa barne) bete egin behar duela datuen kalitatearen printzipioa (DBLOren 4. artikulua), hau da, datu pertsonalak bakar-bakarrik tratatu ahal izango direla egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak badira. Kontsulta honetan aztertzen ari garen kasuan aldi baterako ezintasun kasuetan ordainsarien % 100a jasotzeko, langileari eskatzen diote ebakuntza kirurgikoa egin dioten ospitaleko egiaztagiriaz gain, "*ebakuntzaren mediku txostena*" ere aurkezteko; eta gure ustez, hori eskatzea gehiegikeria da, egin nahi duten osasun datuen tratamendua ez datorrelako bat halako datuen tratamendua egiteko baimena ematen duten arauekin, nahikoa delako ebakuntza kirurgikoa egin duen ospitaleko egiaztagiria aurkeztea ebakuntza kirurgiko baten ondorioa den aldi baterako ezintasuna egiaztatzeko.

Esandako guztia kontuan hartuta, langileei eskatzea beraien osasun datuak lagatzeko, ordainsarien % 100a jasotzeko, ez dator bat datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 17a